

Inmigrazioari eta gizarte zahartzeari lotutako txirotasuna handitzen ari da

Prestakuntza eta enplegua bateratzen dituzten politikak hobesten dira

Iñaki Uriarte / Bilbo

Bazterketatik atera eta zokoratuak gizarteratzea dateke txirotasunaren aurkako politiken egiteko nagusia.

TXIROTASUNAK ezaugarri berri eta aldagarriak ditu, hori da behintzat Bilboko Guggeheim museoan adituek atera duten ondorioetako bat. Hori dela eta, txirotasunaren eta gizarte bazterketaren aurkako politikak diseinatzeko orduan txirotasun mota ezberdinen bilakera zehatza aztertu behar dela nabarmendu zuen Anjeles Iztueta EAeko Gizarte Arazo-etako sailburuordeak.

Aldagarritasuna sartzen duten eragileen artean inmigrazioa eta gizarte zahartzea direla txirotasuna handitzearen faktore nagusiak ohar-tarazi zuen Iztueta. Bestalde, gazteria eta emakumeak dira txirotasuna pairatzeko arriskurik handiena duten kolektiboak.

Arazoari aurre egiteko politika aktiboak eta pasiboak konbinatzearen alde agertu zen Iztueta. «Baztertuta dagoenari arraina, janaria eman behar diogu, eta aldi berean irakatsi egin behar diogu arrantzan egiten», azaldu zuen adibide biblikoaz baliatuz. Politika horietan gizarte, enplegu, etxebizitza eta hezkuntza sailak gobernu, diputazio eta udaletan koordinatu behar direla esan zuen.

Politika pasiboen artean, Jaurilaritzako Lan eta Justizia Sailaren laguntza ekonomikoak, gutxieneko diru sarrera (IMI) eta premiazko kasuetarako laguntzak daude. Politika eragileen artean, berriz, enplegua sustatzen du-

Hala ere, horra heldu arte herritar guztien gutxieneko diru sarrera bermatu behar dela berretsi dute adituek. Inmigratioak eta populazioaren zahartzeak txirotasuna handia-

razten duten faktoreak dira, nahiz eta arrisku handien duten kolektiboak gazteria eta emakumeak izan. Eusko Jaurilaritzak programa bi jarriko ditu abian uda honetan.



JOSU ETXEBARRIOSTE

Nazioarteko adituek hiru egunez txirotasunaz eta gizarte bazterketaz eztabaidatu dute Bilbon.

ten politikak daude; lanak zuzenean emandako diru sarrerak eta gutxieneko errenta bateratzen dituzte.

Eusko Jaurilaritzak programa bi jarriko ditu indarrean udan. Horietako bat, *Auzolan* programa, zuzendua dago gutxieneko diru sarrera jasotzen dutenentzat. «Hor elementu bi bateratzen dira, enplegua, gizartearentzat egiten

den lana, eta prestakuntza. Gizarteari zerbait ematen dio, eta gizarteak, berriz, ematen dio lan bat eta prestakuntza», azaldu zuen Gizarte Arazoetako sailburuordeak.

Txirotasun mailak

Txirotasun gorriak 5.500 lagun hunkitzen ditu, nahiz eta horietako gehienek Adminis-

trazioaren laguntzak jasotzen dituzten.

Premia mailak ere finkatu dituzte adituek. Mantentzeko txirotasuna, metatze txirotasuna eta ongizate eza dira, larritik arinenera, egungo mailak. Gizarte bazterketa, ostera, pertsona batzuk ekoizpen eta kontsumo sistematik kanpo uzteko joerari dagokio.

Pertsona bat hil da Getxon izandako auto istripuan

Lasarten gertatutako istripu baten lekukoak behar ditu Ertzaintzak

Erredakzioa / Donostia

PERTSONA bat hil zen atzo goizaldean Getxon izandako auto istripuan, Udaltzaingoak jakinarazi zuenez. Ezbeharrak goizeko 07:50ean gertatu zen, Algorta auzoko Txakur Soko eta Euskal Herria kaleen arteko bidegurutzean. Jeep 4x4 bat gidatzen zihoan I.P.L. 49 urtekoa istripua izan eta berehala hil zen. Lerrook idazterakoan Udaltzaingoak ez zuen argitu istripua zergatik gertatu zen.

Nafarroan, berriz, 35 urteko emakume bat arin zauritu zen A-15 autobian izandako istripuaren ondorioz, Aizpitarte inguruan. Ezbeharrak arratsaldeko 16:30ean gertatu zen autobioako 113. kilometroan, Iruñerako norabidean. Auto gidaria, Maria Lourdes Milagro, anbulantzia batean eraman zuten Nafarroako ospitalera.

Ertzaintza, bestalde, ostegunean Lasarten gertatutako istripu bat argitu nahian dabil. Horretarako, istripuaren lekukoren bat balego Hernaniko komisariara ager dadin eskatu dute. Ostegun goizean motor bateko gidaria larri zauritu zen Lasarten kamioi baten aurka parez pare talka egin ostean. Gaztea Arantzazuko ospitalera eraman behar izan zuten.

INTXAURRE
HERRIKO TABERNA
EUSKAL PRESOK

EUSKAL HERRIRA
DURANGO

BAI, HARPIDETZA SAILA?

902 30 02 23

JAR ZAITEZ GUREKIN HARREMANETAN

TELEFONOAK: 943 30 02 22
Egunkaria 902 30 02 23
FAXA: 943 30 07 07
e-mail: harpidetza@egunkaria.jalgi.com
web gunea: www.Egunkaria.com

LEHIAKETA PUBLIKOA

-ELBURUA
1go Plegua: Lurzoru-poluituak berreskuratzeko Teknologien Gidaliburua gauzatzea.
2. Plegua: Lurzoru poluituentzako prebentzio-neurriak identifikatzearren Gidaliburua gauzatzea.
3. Plegua: Lurzoru poluituetan arrisku-azterketa egiteko eredu informatikoa egokitzea.
4. Plegua: Merkurioa distilatatzeko labea erostea.

LIZITAZIO MOTA
Publikoa.

KONTSULTORE MAILAKETA
Zabalik.

PLEGU ESKARIA ETA KONSULTA TEKNIKOAK
IHOBE, S.A.
Ibáñez de Bilbao, 28-8.
48009 Bilbao (Tel.: 94-4230743 / Faxa: 94-4235900)
Enpresaren kreditazioa aurkeztu beharko da.

PROPOSAMENERAKO AZKEN EGUNA
1go, 2., 3. eta 4. Pleguak: 2000ko ekainaren 28a, asteazkena (13:00etan)

PUBLIZITATEAREN GASTUAK
Iragarki hau esleipen-hartzaileak ordainduko du.

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
LURRALDE ANTOLAMENDU, ETXEBIZITZA ETA INGURUGIRO SAILA
DEPARTAMENTO DE ORDENACIÓN DEL TERRITORIO, VIVIENDA Y MEDIO AMBIENTE

IHOBE
Sociedad Pública Gestión Ambiental